

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Antonio Guridi Aierbe

*Zegama,
Gipuzkoa
(1921)*

Aurkibidea



Biografia



Zegamako Dinti auzoko Arakama baserrian jaio zen 1921ean. Ama Zegamako Anduezakoa eta aita segurarra zituen; 4 anai-arrebatan zaharrena da. Zegamako eskolan ibili zen umetan. Baserritik bizi ziren: behiak zituzten etxean eta esne-saltzaile ibili zen. Gerra garaia gertutik ezagutu zuen, Zegamako mendi gainetik Anbotoko tiroketak entzun eta ikusten zituzten. Soldadu egona da Lesakan, Elizondon, Erratzun... Umetatik erleak gustatu izan zaizkio eta 16 urterekin bere erlategia jarri zuen. Erleen inguruko kontuak azaltzen dizkigu.

Zintak

ZEG-009

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2010-10-28
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Aitonaren gaztetako ibilerak

- **Erref:** ZEG-009/004
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:08:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Etxeginak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Aitonak kontatu ohi zien behin erre kara behia eraman zueneko istorioa. Aitonak bi egun eman zituen eskolan: liskarra izan zuen ikaskide batekin, maisuak jo egin zuen eta ordutik gehiago ez zen itzuli. 16 urterekin Donostiara joan zen harginaren laguntzaile izateko, Santa Katalina zubia egiten. Handik Iruñera joan zen lanera, San Kristobal go gorlekua egitera.</p>

Transkripzioa

-“O sea que” zeorrek ikusita ez bazan’ e kontatuta aurreko generazioko kontuk’ e kontauko zittuen aitton amonak?

-“Hombre”, bai, bai, esan, esan itten zitun aittonak, aittonak e, gaztia zan garaian hemen, hor e barrio, kaleko barrio hortan bizi izandakoa zan ta, hor jaio ta, motikoa ya haundia in ta, ta [...] aittonan batek esan omen zion e, behie ura eratea erreka zijola “motel! prakak ez badittuk jazten kapau ingo haut” ta esan omen zion amai “ni gehio behiekin erreka ez naiz jungo ez badiozu prakak eitten, ta [...] Martiñek esan dit kapau ingo naula”. Hori kontatzen zigun harek.

-Estuasun earra eamango zun harek etxea?

-Estuasune bai, bai, garai hartako mutikok, ez zan kobardea, gaurko mutikoa izan balitz, e, bixkorra izango zan hua, gu baiño bixkorragoa. Gero ba klaro, ordun mutikok haundik ta haundik e, eskola jun da ta eskolan jun da bi egun bakarrik eskolan indakoa zan.

-Bi egun in zittun?

-Bi egun. Eskola jun omen zan ta, eskolan haserretu ta, mutiko mutiko haundie ta beste mutikon batekin ta, ein du burrukaldie ta maixuk uaindio sekulako pasarea. Ta pasarea eman zion garaien’ e, lehiotik salto ein ta irten ta etxea jun. Ta bere aittek esan omen zion “ze pasau zak, uaiñ etxea etortzeko” ta “kixton pasarea eman dit aittek, e, maixuk” ta “maixuk jo hauela? nik esango zioat hareri”. Mesa nausita juten omen zien ordun’ e maixuk eta horiek danak apaizek’ e, maittek hori izaten zien maixuk eta hori, herrie eamaten zuenak, eta jun ta esan omen zion e “zuk jo iñ emen dezu nere semea” “bai! earke mezita” esan emen zion “ba ez dezu gehio joko” ta gehio jun bare.

-Gehio ez zan jun?

-Gero handik hamasei urte zittun garaian Donostia jun emen zan e, pintxe, argiñan pintxe, “puente Santa Catalina” ein zuen garaien. Eta han ofizioa ikasi zon garaien, han, han lehendabizi pintxe jungo zan ta gero lanen ikasiko zon ta lana ikusi ta etorri honuntza etorri zan garaien e, lana azaldu omen zan Panplonan “puente San Cristobal” a itten, ta hautza jundakoa. Ta han hala esaten zon han jende, han leku askotakok ibili omen zien ta han’ e metroa utzi ta beste aldea beitzen bazendun atzea beitzekon han ez omen zan eoten metroik. Hala kontatzen zittun aittonak, nere aittonak.

2. Aita Seguran bizitakoa 16 urtera arte

- **Erref:** ZEG-009/005
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:08:03. **Bukatu:** 00:09:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Aita Seguran bizi izan zen 16 urte bitartean. Han aspertu egiten zen eta alde egitea erabaki zuen: baserri bat erosi eta konpondu zuen. Orduan, fabrika batean hasi zen lanean 6 pezetaren truke.</p>

Transkripzioa

-Aitta berriz Seguran hamasei urte bittarten bizi izandakoa ta gero handik minata Mutilloko minata, minata Mutillon hor..

-[...] minak o?

-Minatan ta gero hemen Segurako kalen'e aburrittu itten omen zon harek eta aittei esan omen zion "ni hemendik noabaitt, noabaitt noabaitt jungo nitzake ni hemendik, hemen eon, bestek indako putzek'e denak jan behar due mina zahar hoitan ta", "ba motel" e, argiña zan gero aittona, argiñ [...] zun, etxeak in ta hola ibiltzen zana, "badauzkat ba nik hemen señoan [...] lana, nik asko in diat eta haik etxe zahar bat bazeukek iñor bizi ez dana, bi familik alde indakoa ta nik arreglauko nitek hura, eguna [...] harek'e" ta hala harek erosi baserrie, ta gero bere bizi guztie baserrik arreglatzen pasau zon ta aittek handi ba fabrika, hamabi orduko lana, hamabi orduko lana eta sei pezta jornala. Ta pentsa zazu jateko generoa ze galesti zeon ordun, ni akordaten naiz, mutiko txiki txikie nitzela, esan zon "artzaiena jun ber det, eukiko dek ardi gixenen bat ta ekarri ta zeak itteko, mondejuk eta itteko", ta hala ekarri zun ardi txiki bat ondio, fotografia ikusita bezela dauket, ez dauket fotografik baiño. Muittur gorrie, ardi txiki bat, gixen gixena, umeik eta in bare gelditutakon bat ta bost duro pauta, pentsatu sei peztako jornaletik bost duro, nola zeon jateko gauzea galesti. Asike bakoitzak berak produzitu behar izaten zon bere lurretan, gero lur hok danak labrau itten zien, lur hok danak nola edo hala labrau itten zien.

3. Baserritik bizi: lurra landu eta ganadua zaindu

- **Erref:** ZEG-009/006
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:09:39. **Bukatu:** 00:11:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Etxe inguruko lursailak lantzen zituzten: artoa, garia, arbia, babarruna... ereiten zituzten. Ogia etxean egiten zuten astean behin. Lehengo behiak askoz okerragoak izaten ziren, bai esnetarako, bai haragitarako. Goizean eta iluntzean, taloa eta esnea jaten zuten etxean. Garia, artoa, gaztainak eta fruta oinarritzkoak ziren elikaduran.</p>

Transkripzioa

-Zuek'e etxe inguruko terrenotan labrantza itten zenuen?

-Bai, bai, bai guk'e bai ta beste gaiñentzeko danak'e bai.

-Ze lantzen zenuen?

-Ba artoa ta garie ta arbie ta hori ta babarruna ta artoa izaten zan asko, harekin familik hazitzen zittun hemen jendek, harekin hazten zittuen familik, zeatik garik, garik, gutxigo ematen zon, garie izaten zan hemen garie e, baiño klaro urtabek izaten zien bastante txarrak, leku ez da hain apropiatue hau garindako, ta gero gari hura ba errota eman ta iho ta uain'e esaten deu "ba, ogie, ogie zuri hori baiño beste hori hobea emen da" ta ba, urdun nahi ez ta jaten zan e zaie, nahasie zeatik ezen.

-Zeona [...]

-Bai batzuk eta izaten zien han pasau ta ogie in ta, ordun ogi zaharrik ez zan izaten, igual asten behiñ eo ogie in laben, ta halaxe bizi. Ta halaxe ta gero behiek, behiek'e ordun, behiek'e uaingo razak ez zien izaten, zien e askoz txarragok, esne-behi txarragok ta haragitako're txarragok ordun,

danetatik txarragok. Gero janik ez zan izaten handako, zeati lurre dana moittu itten zan, ta zelai gutxi zan, ta larren ta kanpon ta ahal zan bezela bizi izan behar izaten zuen behiek'e. Ta behiek hain txarrak ez zienak, esnea're juxtu juxtu ematen zuen familiako, batzutan exkax. Ta taloa, goizen taloa ta esnea gosaltzen, ta illuntzan berriz taloa ta esnea.

-Baiño bai earra zon bitarten ezta? Bat'e ez zan hobea izango!

-A, bat'e ez, bat'e eza zeukenak ta exkax zeukenak gaizki, oso gaizki. Ta eitten zan ordun ba, eguerdin generalen, bazkaltzeko garaien ta, ogie, ta ogie urte guzin ogi hutsekin ez zan, ez zan aillatzen baserri askota behintzat, ez zan aillatzen garie urte guziako ta artoa sartzen zan tarten, artoa berriz izaten zon hemengo jendeak, ta gaztiñak etortzen zienen gaztiñak, eta frutea ba kanpotik ez zan etortzen ordun frutaik bertan izaten zien sagarrak eta hola.

4. Soroko lanak urte guztian zehar

- **Erref:** ZEG-009/007
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:11:57. **Bukatu:** 00:14:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Garia ereiteko, klima hezeegia da hemengoa. Artoak nola landatzen zituzten azaltzen du. Urte guztian egoten zen lana soroan. Behia eta astoa laguntzeko erabiltzen zituzten. Lursailak etxe inguruan zituzten eta aldapatsuak ziren.</p>

Transkripzioa

-Esan dezu garintzako hau toki txarra dala.

-Ez da haiñ ona ez.

-Zeatik?

-Zeatik? Klima txarra dalako, busti bustie dalako, klima...

-Hezegie dalako?

-Hezegie dalako bai.

-O sea ke lehorrgoa behar dulako?

-Lehorrgoa hobeto izaten zien urtabek ondo ematen zona garik ta beste urtabe batzuk ba lastoa iñ haundie ta etzanda ta, e bueno, ba gutxigo ematen zuenak.

-Esan dezu artoa ta arbie're itten zenduela?

-Artoa ta arton tarten indoabea ereiten zan, ta indoabea kantidadea izaten zan ordun.

-Arton tarten, zeatik?

-Arton tarten izaten zan indoabea.

-Zeatik arton tarten?

-Indoabea entenditzen entenditzen al diazu indoabea?

-Bai.

-Ba artoa iotzeati, gora. Indoabeak lurren ez dolako balio, lurren, igo in behar do gora, ta artoi eusten zion ordun. Ta artoi botatzen zikon ba, metro terditi o hola ta botatzen zien hiru ale ttak, ttak, ttak ereiteteo garaian, ta indoabeak irteten zuen behetik gora ta urtabek izaten zian bezela, asko emate zon harek arto tarten. Urte guztin soron ibili behar izaten zan ordun,

emakumak eta gizonak. Gero jorratzen, atxurrekiñ han jorratzen, lurak moitzeko trastek'e oso txarrak zien,...

-Ta zekiñ ibiltzen ziñeten behiekin?

-Behiekin, behie uztarrin lotu ta hezi ta uztarrin hatxe behiekin ta, astok iten zun bizimozu haundi, asko ematen zon, launtzen zon, harendako jana ekartzeko ta astoa izaten zan jana kargatzeko ta.

-Aja, astoa ibiltzen zenuen zuek?

-Astoa asko, bai beti astoa, bai.

-Terrenok etxe ingurun, etxe bueltan ala aparte?

-Bai, guk bai, guk hala geneutzen, etxian ingurun geneutzen terreno danak, aldapatxu.

-Ta han ibili in behar.

-Ta han hantxe goran ta gero behetik gora karga're behetik gora ekarri bihar izaten zan produktoa. Uain ordun abonoik ez zan, abonoa zan ximaurre, ta ximaurre goitik behera eamateko etxek zeren, dare inda, uain'e ikusiko dittezue baserrik eta dare terrenoan guenen, ta hori zan dana ximaurre goitik behera eamateati.

-Apropos?

-Apropos egiten zuen generalmente, nik hala ikusten dittut e, hala inda.

-E...

-Ta uain in behar balitz ingo lieke terrenuan barrenen etxek.

-Barrenen?

-Bai, ta goiti behera ekartzeko, baiño uain uain bai, uain beste gauza batzuk dare.

5. Arbia ereiteko jakin beharrekoak

- **Erref:** ZEG-009/009
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:15:02. **Bukatu:** 00:18:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Gariak lurra asko txupatzen zuen. Gero arbia ereiten zuten eta horrek on egiten zion lurrari. Arbia noiz eta nola ereiten zen azaltzen du. Arbiak lurra ondu egiten du, lekaduna baita. Arbiaren probetxua ganaduarentzat izaten zen. Arbia eta gero, artoa eta indabak ereiten ziren.</p>

Transkripzioa

-Antonio e, esan dezu arbia're itten zenuela.

-Bai, ereiten zan ba, baiño eiten zan ba garie, ta gariek eiten zun lurra txupatu, asko, eta gero eiten zan arbie, ta itxurea arbie ganadundako ta gaiña lurre meioratzeko.

-Arbie nola eitten zan?

-Arbie ereitten zan ba hazie, hazie rekojitzen zan ta.

-Nundik biltzen zenuen hazie?

-Hazie? Bertan etxen izaten zan.

-Bertan izaten zan.

-Bai, arbi hori eitten zien ba, soroti aldatu, aldatu o plantatu o ze esaten diozue?

-Aldau, aldau, bai.

-Ba aldau batza baten ta sei bat e, ondo, pues hola ta hak ematen zuen hazie, ta txorik jaten zuenen, ordun izaten zien komerik, txorik, txorik hazi hura jateatik, gaiztok izaten zien.

-Ze txorik jaten zuen?

-Txori, raro batzuk, uain hemen ikusten ez dienak, ta txori txiki batzuk jaten zuen hua. Ba hura hartzen gendun ta gero hura ba botatzen gendun ba, agutzun lehendabiziko egunetan. Eun jakiñek zittun hura ereiteko, este hamabi ingurue, batzuk beatzi esaten zuen, baiño beatzim indakok gaixoa harrapatzen zuen genealen, ta hamabin indakoak ya hamabiti aurea hamabiti ba hogeiea bittarten eo hola.

-Zeatik, illargin arabera o?

-Ez, ez, ez, ez illargi ez zion beitzen, [...] ez zion beitzen behintzat illargiri.

-Ta seitik hamabiako tarte hortan ze diferentzi zeon ba, o ze?

-Ba hortxe, hortxe ta handik atzea indakok're ez zon irabazten, hotza etortzen zan ta. Eta ia agutzun'e erditik atzea, ba hotza, hotza, ta hotzakin ez zon irabazten arbik, ordea arbie ba irabazten dona da zeakin, este bastante hotzakin, baiño arbie ereiten zan ba, ba hillen hamabi alden o hola agutzun hamabi alden o hola, ta gero iten zan ba jorratu, atxurrekin, bakandu, ta gero batzutan ale haundi haundi.

-Nola bakantzen zenuen?

-Ba eskukin raka raka raka raka raka raka, ta atxurrekiñ'e bai ta eskukin. Ta alea hola uzti behar, alek hola, hola.

-Ta behin bakandutakon?

-E, bai, bakandutakon ba, bakandu ta jorraudakon ba utzi ta gero juten giñen ba bakantzen ta ganaduai emateko ateratzen ia hazitzen zien garaien, ia ondo bakanduta jartzen gendun, ta gero ia azkenen ba dana atatzten, poliki poliki poliki poliki.

-Eskuz ateatzen zenuen?

-Eskuz ateatzen zan dana ta eskuz garbittu eitten zan, kutxillo batekin dana eskuz garbitzen zan. Ta gero ba, hori eitten zan e arbie, ximaurre, ximaurre zeona arbiri botatzen zion. Ta gero arbie kendutakon ereitten zan artoa ta indoabea.

-Eta arbik zer zeukala esan dezu lurrei're?

-Mejorau itten dula arbik. Bai.

-Zearik?

-Ba nik uain izena ez dizut esango ba, arbie da ba, legubinosatakoa. Ta legubinosa danak eitten due e lurre mejoratu.

-Zeozar botatzen die lurrai o?

-Ez, ez, ez, ez, ez, ez, ez ba ez zan abonoik ta ordun ez zan beste abonoik. Ta legubinosa danak eiten due mejoratu, ta nik usten det ereitten zuela arbie ordun ba lurre mejoratzeko gehien bat, eta ganaundako, bai, ganaundako behar zan ta ereitten zan, ganadua harekin mantentzen zan negun.

-E, arbin probetxue ganauntzako izaten zan?

-Bai, bai, ganadundako izaten zan. Ta gero eiten zan ba, handi ba artoa, artoa ta indoabea. Ta artoa ta indoabea ba ondo etorten zien haien ondon'e. Lurre zenbat eta gehio abonauta zeon ba hala.

6. Etxeko ura nondik ekartzen zuten

- **Erref:** ZEG-009/010
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:19:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

<p>Etxeko ura etxe inguruko errekatxo batetik lortzen zuten. Udan, ordea, lehortu egiten zenez, beheko errekarara joan behar izaten zuten. Arropa garbitzera ere hara joaten ziren.</p>

Transkripzioa

-Antonio e, zuk lehen esan dezu errekatxo bat pasatzen zala handik, ude bazenuen etxen?
-Etxen ure, e, errekatxo bat etortzen zan, baiño errekatxo hori ba udan eiten zan e.
-Agortu?
-Agortu, ta ordun jun ber izaten zan beheko erreka, erreka hau behiek ura eatea e hauntza ematen zien eta garbietakoa jotzeanen, lixibea izaten zan ordun, ta lixibea jotzea're hauntza jun ber izaten zuen, bai.
-Etxetik gertu zeukazuen?
-Ez, gertu gertu ez, e, handik bostehun bat metroa, uain kamiñok dare inda ta bostehun metroa, baiño bide zahar zahar txar txar baten jun behar izaten zan handik behera.
-Itturik bazan?
-Itturrie badaula, hua zan itturrie, potzo zulo bat, ba gero jarri in zuen itturrie nik jarri nittun.
-Izenik bazun?
-Izena?
-Bai.
-E, putzu zuloa esaten zioen, putzu zuloa izena, beste itturrik han ez zan, manantialik ez zan.

7. Iturburua topatu eta aprobetxatzen hasi zirenekoa

- **Erref:** ZEG-009/011
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:19:36. **Bukatu:** 00:23:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Behin, iturburu bat aurkitu zuen Antoniok. Lehorte handi bat izan zenean, etxeko urak agortu ziren; eta, orduan, Antoniok aurkitutako iturburuari etekina ateratzen hasi ziren.

8. Ura jartzeko, aitonak egindako asmakizuna

- **Erref:** ZEG-009/012
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:23:30. **Bukatu:** 00:25:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Iturritik ekartzen zuten ura jartzeko, Antonioren aitona lau hankako ontzi bat asmatu zuen. Ontzi hari aska esaten zitzaion. Haren ondoan, argimutilla egoten zen argia emateko.</p>

Transkripzioa

-Baiño gero ingurutako baserrik iñok ez, ba han etxeko [...] baserrik'e ba erreka zeuken ondoren ta ereketa eamaten zuen balden ure hartuta etxen behar zuena. Ta gure etxen'e ba goiko putzu zulo hortati ekartzen zuen putzu zuloa zeon ba handi berrehun bat metroa o hola, zuk itturi esaten zun hori, ta handik hartzen zuen han'e zapabururik eoten zien, ta handik balden ekarri. Ta gero baldek eukitzeko, nere aitona zanak einda zeuken, eskulana eitten artistera zan ta, holako aska bat egurrezkoa, lau hankakin, ta txulo bat, ta aska horren txulo hartati hango ur tantanak han balden zeuzkenak handi beste ontzi batea eroitzen zien, ta han eoten zien hak, balden ure, ta handi ba uain oliboa gastatzen dan bezela, aldiko pixkat gastau behar. Baiño ordun, ordun ez zeon dutxaik ta holakoik e.

-Antonio e harek ude juteko zure aittonak indako ontzi harek o lau hankako ontzi harek ze izen zun? Bakizu o?

-Aske, askea.

-Askea?

-Askea. Ta haren ondoren eoten zan, e, argik ez zeon, elektrizidadeik, eta ardimutilla esaten zioen e zea baten este, behean'e tronko baten sartuta zuloa inda, eta holako alturako bat, txapela bezelako apala bat goien ta han jarri kandela bat eo argizarie ta jarri han ta famili guzie argi harekin, afaldu ein ta errosaio azaldu ta ohiea.

-A, argimutilla esatezu?

-Argimutilla esaten zioen harei. Hoixe, hoixe, lehenau uain larogei urteko kontuk die horik.

-Hoi da...

-Beste itturi horrena ez, itturi horrena gerogokoa.

-Geroztikoa?

-Bai.

9. Esnea banatzen Citroen txikian

- **Erref:** ZEG-009/013
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:25:11. **Bukatu:** 00:26:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Esnea banatzera Legazpira joaten zen bere Citroen txikian. Duela 50 urte inguru ekarri zuen bere lehenengo autoa. Auto hura erosteko egindakoak azaltzen ditu.</p>

Transkripzioa

-Antonio esan dezu esne partitzen'de ibilitzakoa zeala.

-Bai ibilita nabil esne partitzen, Legazpin.

-E, esnetako behiek ordun?

-Bai, hemen'e erdi bazeon ordun, hemen'e hemen'e ya kooperatiba

geneuken, pensuan kooperatiba bat, eta kooperatiba hortako jendea ba, e hemen esnea biltzen zonak ez zon ondo patzen ta gaizki patzen zola ta ez zola gehio patu nahi ta ein zien haikin haserrau ta, ein gendun ordun ba pentsau gendun jutea Legazpia ta, ta ni Legazpin esne partitzen ibilita no.

-Hemendik Legazpia juten ziñan?

-Legazpia ematen non, nik...

-Nun ematen zenun aston?

-Zit ez, ez, zitroen txiki bat ekarri non nik lehendabiziko Vigon montatu zittuen zitroenetako bat nik euki nun hemen.

-Hara!

-Bai.

-Zenbat urte zittuzun?

-E, e?

-Zenbat urte zuk lehendabiziko zitroena ekarri zendunen?

-Nik ez dakit ba uain...

-Ez zittuzun asko izango ezta?

-Uain e, uain e, uain berrogeita hamar urte inguru eo hola ekarri nun, lehendabizikoa, zitroena, hori e, lehendabiziko francesak hori montatzeko hasi zien garaian, Altsasun'e intentau zuen montatzen, ta Altsasun galera in zien, fabrika hori montatzea, ta hurrena Vigon montau zuen, Galizin. Ta Galizin e hoik montau zittuen, e montatzen hasi zian furgonetak eta furgoneta txiki bat "dos caballos" a, ta nik eskau non "ministerio agricultura" tik, ta pasau behar izan nittun bi urte zai hura entregatzeko.

-Baiño zuk urte batzuk ya bazittuzun kotxea ekarri zenuneako?

-E?

-Urte batzuk bazittuzula kotxea ekarri...?

-Bai, bai, bai, bai.

-Asike esne partzen gero?

-Soldaduskak eta horik danak ein da gero aittu nitzan ni.

-Gero...

-Gero aittu nitzan ni.

-Gero aittu ziñen?

-Bai, bai, ta gero harekin eamaten nun, eamaten nittun ta, betse laun batek'e lautzen zien ta, bion arten esne partitzen Legazpin ibilita nao ni.

10. 90 mutiko maisu bakarrarekin

- **Erref:** ZEG-009/015
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:27:10. **Bukatu:** 00:29:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Zegamako eskolan ibili zen: 90 mutiko maisu batekin. Ez zuten ezer ikasten. Maisuak egurra ematen zien ihizko makilarekin. Arabako ezagun batzuen aldean, ez zuten ezer ikasten eskolan. Gau-eskolara joateko asmoa zutela, gerra etorri zen, eta bertan behera geratu ziren asmo haiek.</p>

11. Zegamatik gerraren nondik norakoak ikusten

- **Erref:** ZEG-009/017
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:29:56. **Bukatu:** 00:33:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra ezagutu zuen. Zegaman tiro-saioak egon ziren. Falangistak etortzen ziren, haien janzkera deskribatzen du. Falangistek baserrietik ebakatu egin zituzten, ganadu eta guzti. Bizkaia aldean gerra gogorra izan zen; beraiek menditik ikusten zuten, eta beldurgarria izaten zen. Lasarteko hipodromoan abiazio-zelaia zegoen. Zegaman trintxerak bazeuden eta nolakoak ziren azaltzen du.

12. Errepublikako giroa eta gerra hasiera

- **Erref:** ZEG-009/018
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:33:23. **Bukatu:** 00:35:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Eskolara zihoanean, errepublika etorri zen. Garai hartan, debekatu egin zieten apaizei eskolara doktrina ematera joatea. Eskuinekoak armatu egin ziren eta Nafarroan altxamendua izan zen. Borroka non izan ziren azaltzen du.</p>

13. Gerran jende asko hil, baina bera soldadu joatetik libratu

- **Erref:** ZEG-009/019
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:35:02. **Bukatu:** 00:36:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Zegamako mutil gazte ugari hil ziren gerran, eta inguruetan beste hainbat fusilatu zituzten. Antonioren aurreko kinta eraman zuten gerrara, baina bera libratu egin zen, Bartzelona eta Madril Francoren esku geratu baitziren.

14. Soldadutzako zereginak

- **Erref:** ZEG-009/020
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:36:54. **Bukatu:** 00:39:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutza 4 urte egin zituen. Mugak indartzen aritu ziren Nafarroan. Soldadu garaian gaizki egoten ziren barrakoi zahar batzuetan. Euskaldun gutxi zegoen soldadutza berekin batera.</p>

15. Soldadutzako zigorrak eta bizi-baldintzak

- **Erref:** ZEG-009/021
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:39:02. **Bukatu:** 00:42:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Euskalduna izateak arazoak ematen zituen gerraostean. Gaztelaniaz egitera behartzen zituzten. Soldadutza bideak egitera zigortu zituzten mutil batzuk. Higiene txarra zeukaten soldadutza. Gose handirik ez zuen pasa han, hala ere. Egunean bi erreal irabazten zuten. Ogia tabakoaren truk lortzen zuten Antoniok. Dilista asko jandakoa da.</p>

16. Erleetarako zaletasuna gaztetatik

- **Erref:** ZEG-009/023
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:42:22. **Bukatu:** 00:45:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserríari lotutako lanbideak

Laburpena:

Erleetarako zaletasuna 16 urterekin hasi zitzaion. Etxean beste inori ez zitzaizkion erleak gustatzen eta liburu batetik ikasi zuen erleentzako kaxak nola egin. Erlekumea janari truk lortu zuen, baina galdu egin zuen. Geroago, beste bat ekarri zioten eta poz izugarria hartu zuen.

17. Erle bakoitzaren funtzioa

- **Erref:** ZEG-009/024
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:45:10. **Bukatu:** 00:47:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserríari lotutako lanbideak

Laburpena:

Erle klase asko daude. Erle gorriak galdu egin ziren, beste mota batzuekin gurutzatu baitzituzten. Erle mota bakoitzaren funtzioa eta ezaugarriak azaltzen ditu.

18. Erleen ingurua eta jokabidea

- **Erref:** ZEG-009/025
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:47:49. **Bukatu:** 00:48:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Natura » Fauna

Laburpena:

Erlea ibiltzeko, eguraldi beroa behar da. Erle bakoitza 3 kilometro ibiltzeko gai dela esaten dute. Norbaitek erleen ura hartzen badu, erleek eraso egiten diote. Ura loreetatik biltzen dute erleek.

19. Erlezaintzako jakinduria

- **Erref:** ZEG-009/026
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:48:56. **Bukatu:** 00:51:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Erlezainek ezta nondik eta nola lortzen duten azaltzen du. Erleen bizilekuari buruz hitz egiten du.

20. Erleak ugaritzeko bideak

- **Erref:** ZEG-009/027
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:51:27. **Bukatu:** 00:52:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Antoniok ez du sekula erlerik saldu. Erleen portaera jakinda, erleak ugaritzeko egin beharrekoak azaltzen ditu.

21. Erleak edukitzeko moduak lehen eta orain

- **Erref:** ZEG-009/028
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:52:47. **Bukatu:** 00:54:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Mota askotako erle-kaxak daude. Lehen zuhaitzetan zuloak egiten zituzten kaxak egin beharrean.

22. Erleen kosketatik babesteko neurriak

- **Erref:** ZEG-009/029
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:54:16. **Bukatu:** 00:56:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Erleek koska asko egin izan diote Antoniori. Batzuek erleen pozoiari alergia diote, eta kalte handia egin diezaieke pozoiak. Erleek koska ez egiteko, zer jantzi behar izaten zuen azaltzen du. Behin erle pila batek eraso egin zionekoa azaltzen du; azkenean, kearekin babestu zen.

23. Ezti garbia lortzeko modua

- **Erref:** ZEG-009/030
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:56:42. **Bukatu:** 00:58:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Erle-kaxak non uzten zituen azaltzen du. Ezti garbia lortzeko, iragazi egiten da. Eztiaren kolorea ez da beti berdina izaten, jatorriko lorearen arabera baizik. "Mil flores" ezti erakusten du.

24. Erleak hango eta hemengo loreetan

- **Erref:** ZEG-009/033
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:59:57. **Bukatu:** 01:00:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Kilo erdi ezti egiteko, lore askotan ibili behar dute erleek. Ez dute lore mota bakarretik hartzen behar dutena.

25. Erlearen portaera

- **Erref:** ZEG-009/035
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:01:59. **Bukatu:** 01:02:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Eztia saldu egiten zuten kooperatiban, partikularrei... Erleak kearekin ikaratzen dira.

26. Erlearen pozoia eta eztiaren gozoa

- **Erref:** ZEG-009/037
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 01:02:59. **Bukatu:** 01:04:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Erleak miztoan edukitzen du pozoia. Erleak koska eginez gero, ozpina ematea edo belar batzuekin igurztea ona izaten da. Garai batean, erlategiak etxe guztietan egoten ziren, azukrearen ordez erabiltzeko.

27. Polinizazioa

- **Erref:** ZEG-009/038
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 01:04:54. **Bukatu:** 01:05:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Erleak polinizatu egiten ditu loreak. Polinizazioa nola izaten den azaltzen du.

28. Erlezaintzan hasi zenekoa

- **Erref:** ZEG-009/040
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:05:48. **Bukatu:** 01:06:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

16 urterekin hasi zen erlezaintzan. Bera bakarrik ibiltzen zen eta bere kabuz ikasi zuen liburutik. Erleengana zenbatero joaten zen aipatzen du.

29. Erle-kaxak lehen eta orain

- **Erref:** ZEG-009/042
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:06:50. **Bukatu:** 01:08:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Erleak kaxa barruan sartzea erraza da. Lehen kaxak egurrezkoak zirenean, gurutzea jartzen zitzaien.

30. Erleen eta liztorren ezaugarriak

- **Erref:** ZEG-009/044
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:08:28. **Bukatu:** 01:09:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Argizaria egiten zuten ezta apartatutakoan. Kandelak egiten zituen etxe bati saltzen zion argizaria Antoniok. Erleak ez ziren nahasten, bakoitza bere familiarekin bizi baitzen. Liztorrak eta erleak antzekoak izanda ere, badituzte aldeak.

31. Erleen gaixotasunak

- **Erref:** ZEG-009/045
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:09:52. **Bukatu:** 01:10:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Erleek gaitzak izaten dituzte: besteak beste, beherakoa. Orduan botika eman behar izaten zaie. Erleak osasuntsu ez badaude, ez dute ezirik egiten eta kalte handiak eragiten ditu erleen artean.

32. Erleen ziztadak onuragarriak ote?

- **Erref:** ZEG-009/047
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 01:10:58. **Bukatu:** 01:11:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Erleen ziztada aurpegitik kanpo izanez gero, ona omen da erreumarako.

33. Erleen etxeak eta haien antolamendua

- **Erref:** ZEG-009/048
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:11:47. **Bukatu:** 01:13:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Erleek ezta eta argizaria egiten dute. Arrautzak zuloetan jartzen dituzte. Erleek beraiek egiten dituzte etxeak; nolakoak izaten diren deskribatzen du.

Erle batetik bestera zer alde dagoen azaltzen du. Hiru zulo mota daude erle mota bakoitzarentzat.

34. Erleen izaera: zer gustuko eta zer gorroto

- **Erref:** ZEG-009/051
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 01:15:24. **Bukatu:** 01:18:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Natura » Fauna

Laburpena:

Erleen artean, erregina bizitzen da gehien. Erregina hiltzean, beste bat sortzen dute berehala. Erle batek hiru asteko bizia edukitzen duela esaten dute. Erleak azkarrak eta langileak dira. Keak uxatu egiten ditu erleak. Lehen behorren simaurrari sua emanda egiten zuten kea; orain, ordea, kartoiari su emanda.

35. Alemani bisitan, janaria bueltan

- **Erref:** ZEG-009/053
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 01:18:58. **Bukatu:** 01:21:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Erratzun soldadutzan egon zenean, apaiz batek azalpen onak ematen zizkien. Ile-apaintzailearengana joaten zenean, alemanengana joaten ziren mugara eta alemanek denetik ematen zieten jateko.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2024-05-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com